

DEBAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE DEBA

**ITZIARKO TOKI ENTITATE TXIKIAREN ALDAKETA JUSTIFIKATZEN
DUEN TXOSTENA**

2018ko urria

ITZIARKO TOKI ENTITATE TXIKIAREN ALDAKETA JUSTIFIKATZEN DUEN TXOSTENA

AURKIBIDEA

1. Itziarko Toki Entitate Txikiaren sorrera.
 - 1.1. Lurralde-eremua.
 - 1.2. Toki Entitate Txikiaren eskumenak.
 - 1.3. Gobernu-organoak.
 - 1.4. Ondare-banaketa.
2. Toki Entitate Txikiaren sorreraren aurrekariak.
 - 2.1. Itziarren udalerrri berri bat eratzea.
 - 2.2. Toki Entitate Txikiaren eraketa-prozesua.
3. Egungo Toki Entitate Txikiaren inguruko oinarritzko desadostasunak.
 - 3.1. Alderdi historikoak.
 - 3.2. Lurralde-mugei buruzko desadostasunak.
 - 3.3. Toki Entitate Txikiaren eskumenei buruzko desadostasunak.
 - 3.4. Funtzionamendu-arazo praktikoak.
 - 3.5. Ondare-banaketa.
 - 3.6. Administrazio-berezitasunak.
4. Toki Entitate Txikiaren eraketarekin lotutako beste desadostasun batzuk.
 - 4.1. Toki Entitate Txikiaren egungo eraketari buruzko desadostasunak.
 - 4.2. Bereiztea eta Itziarren udalerrri berri bat eratzea.
5. Aldaketa.
6. Aldatutako Toki Entitate Txikiaren mugak.
7. Ondarea.
8. Berezko eskumenak eta eskuordetu beharreko eskumenak kudeatzeko erregimenaren erregulazioa.
 - Berezko eskumenak.
 - Eskuordetu beharreko eskumenak.
 - Debako Udalak Toki Entitateari egin beharreko zerbitzuak.
9. Inbertsioak.
10. Toki Entitate Txiki aldatuaren aurrekontu-esleipenak.
11. Itziarko Toki Entitate Txikiaren bideragarritasun ekonomikoa.
12. Udalerrriaren interes orokorretarako kalterik eza.

13. Baliabideen koordinazioa eta optimizazioa.

1. ITZIARKO TOKI ENTITATE TXIKIAREN SORRERA.

2014ko ekainaren 17an, aldeko zortzi botoren gehiengoarekin eta kontrako bost botorekin, Debako Udalak Itziarko Toki Entitate Txikia eratzea onartu zuen.

2015eko urtarrilaren 27ko 3/2015 Foru Dekretuaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Debako udal-barrutian Debako Udalak Itziarko Toki Entitate Txikia eratzea onetsi zuen. Jarraian azalduko diren lurralde-eremua, gobernu-organoak, eskumenak, ondarea eta aurrekontu-esleipenak eman zitzaizkion.

1.1. Lurralde-eremua.

Toki Entitate Txikiaren eraketa oinarritu zuen justifikazio-txostenak honela deskribatu zuen haren lurraldea: "Entitate berriari dagokion lurralde-eremuak Deba udalerrian kokatzen diren ondorengo auzoak hartzen ditu: Arbiskoa, Arriola, Egia, Elorriaga, Endoia, Itsaspe, Lastur Behea, Lastur Goia, Mardari, Itziar hirigunea eta Itziar auzoa". Honela jarraitzen du "Itziarri dagokion eremuaren azalera 48 km²-koa da eta Deba Udalerriak orotara 51,9 km² dituenez, azalera % 92,5eko pisua hartzen du Itziarrek udalerrri osoarekiko".

Jarraian, taula hau ematen zuen:

	km ²	%
Itziar	48,0	92,5
Debako hirigunea	3,9	7,5
Udalerrri osoa	51,9	100,0

Justifikazio-txosten horrek Debako udal-barrutiko lurralde osoa eman zion toki-entitate txiki berriari, hirigunea eta haren ingururik hurbilena izan ezik. Halaber, udalerriko industrialde bakarra sartu zuen Toki Entitate Txikian: 800.000 m²-ko azalera eta 1.500 langile inguru.

Dokumentu horren beraren arabera, honako hau zen biztanleria 2012an:

	Biztanleak	%
Landa-auzoak	577	10,61
Itziar hirigunea	477	8,78
TET guztira 1.055	19,39	
Deba hirigunea	4.385	80,61

Udalerrriaren % 92,5 eman zitzaion biztanleriaren % 19,39 zuen entitate txiki bati. Toki Entitate Txikiak hirigune bat du, Itziar, eta bereizitako zenbait auzo.

Toki Entitate Txikiko biztanleen ezaugarri espezifikoak dagokienez, txostenak adierazi zuen entitate berriko auzoak landa-ingurune batean daudela, eta Debako hirigunea/gune zentrala, ordea, hiritarra dela.

1.2. Toki Entitate Txikiaren eskumenak.

Toki Entitate Txikiaren berezko eskumenak:

Dekretuak toki-entitate txiki baten berezkotzat hartzen diren eskumenak eman zizkion Itziarko Toki Entitate Txikiari:

- a) Hirigunearen mantentzea: bideen, bide publikoen, plazen, parkeen, berdeguneen eta hiri-altzarien administrazioa eta zaintza.
- b) Erabilera publikoko eraikinen, instalakuntzen eta azpiegituren administrazio-, mantentze-, garbiketa- eta zaintza-lanak.
- c) Landa-garapena eta mendiak: landa-bideen, etxe eta baserrietara sarbidea ematen duten bideen eta mendiko bide publikoen mantentze- eta zaintza-lanak.
- d) Kale bideen garbiketa.
- e) Argiteria publikoa.
- f) Hilerriz-zerbitzua.
- g) Hondakinen bilketa.
- h) Festak eta muntaketak.
- i) Kultura, euskara eta aisialdia sustatu eta dinamizatzeko zerbitzuak.
- j) Ordena publikoa eta herritarren segurtasuna.

Eskuordetu beharreko eskumenak:

Dekretuak ezarri zuen, bi alderdien artean sinatu beharreko hitzarmena tarteko, justifikazio-txostenean zehazten diren eskumenak eskuordetuko zizkiola udalak toki-entitate txikiari ondorengo eremu hauetan:

- Hirigintza-diziplina.
- Gizarte-zerbitzuak.
- Osasuna.
- Turismoa, ingurumena eta Geoparkea.
- Herritarrei arreta entitate txikiaren interesekoak soilik diren zerbitzuak ematean.

1.3. Gobernu-organoak:

- Auzo-alkatetza, kide bakarreko organo gisa.
- Auzo-batzordea, kide anitzeko organo gisa: auzo-alkateak eta 4 kidek osatua.

1.4. Ondare-banaketa.

Foru Dekretuak entitate txikiari emandako lurraldean dauden higiezin eta azpiegitura guztien jabetza eman zizkion Itziarri, baita Debako udalerrri osoaren erabilera orokorrekoena ere.

2. ITZIARKO TOKI ENTITATE TXIKIAREN SORRERAREN AURREKARIAK.

2.1. Bereiztea eta Itziarren udalerrri berri bat eratzea.

Itziarko Toki Entitate Txikiak **Itziar bereizteko** eta udalerrri independente berri bat eratzeko **proiektuaren** elementu komun asko ditu, eta **lurralde-eremu berdin-berdina**. Gipuzkoako Batzar Nagusiek atzera bota zuten proiektu hori 1996an, besteak beste **"Itziarren aldeko lurralde-banaketa guztiz neurrigabea"** zelako.

2.2. Itziarko Toki Entitate Txikiaren eraketa-prozesua.

2013an Toki Entitate Txikia eratzeko proiektuaren berri eman zenean eta 2015ean proiektu hori onartu zenean, hiriguneko biztanleak asko kezkatu ziren, eta erabaki haren aurka azaldu ziren; batez ere, lurralde-eremua dela eta. Proiektua jendaurrean egon zen bitartean, 1.213 pertsonak sinatutako zenbait alegazio aurkeztu ziren. Udalbatzak haiek guztiak baztertu zituen.

Alegazio horietako batek hau eskatzen zuen: udalerrriaren antolamendu-proiektu berria biztanle guztiei kontsultatzeko. Izan ere, alegazioak aurkeztu zituztenek uste zuten, entitate txiki berriak hain lurralde-eremu handia, berezko eskumenak –baita eskuordetuko ziren eskumen garrantzitsuak ere– eta biztanleriaren % 20 izango zituela kontuan hartuta, udalerrri osoaren egitura eta kudeaketa izugarri aldatuko zela, eta horrek biztanle guztiei eragiten ziela, ez zati bati soilik.

2015eko maiatzaren 24ko udal-hauteskundeetan, Debarren Ahotsaren eta EAJren hautagaitzek, Toki Entitate Txikia –batik bat, haren lurralde-eremua– aldatzearen egin zutenek, botoen gehiengo zabala lortu zuten; hain zuzen, 13 zinegotzitatik 8 Horrek argi eta garbi berretsi zuen Debako herriaren agindua: Toki Entitate Txikia aldatzea.

3. EGUNGO ITZIARKO TOKI ENTITATE TXIKIAREN INGURUKO OINARRIZKO DESADOSTASUNAK.

3.1. Alderdi historikoak.

Gaur egungo Debako udalerrriaren antzeko lurralde-eremua zuen entitate baten jatorria 1027. urtean aipatu zen lehen aldiz. 1294an, forua eman zitzaion hiribilduari egun Itziar dagoen lekuan, lurralde-eremu horretan. Montreal deitu zitzaion. 1343an, Montrealgo kontzejuak herria uraren ondoan kontzejuarena zen eta beste herririk ez zegoen leku batera –*“lugar junto al agua que es de nos el dicho Concejo, donde no a ninguna puebla”*– eramateko baimena eskatu eta lortu zuen. Herria eta hiriburutza kokaleku berrira lekualdatu ziren. Montreal izenari eutsi zion, baina “de Deva” erantsita, ibai horren ondoan baitzegoen. Jatorrizko kokalekuan, biztanle-kopuru txikia geratu zen, eta Itziar izena hartu zuten. Hiribilduaren jurisdikzioaren peko lurraldea ez zen aldatu.

Horrenbestez, Debako udalerrriak, egungo lurraldearekin eta bi hiriguneekin, zazpi mende baino gehiago ditu, eta, denbora horretan, ez da egon ez administrazio ez biztanleria bereizirik. Aitzitik, udalerriko langa-guneetako jendea Debako hirigunera bizitzera joan ohi da. Komunitate honen historian, biztanleen arteko gatazkak interes ekonomiko desberdinen ondoriozkoak izan dira, beste edozein komunitatetan bezala. Hau da, ez dago jasota horiez bestelako gatazkarik egon denik, nahiz eta Toki Entitate Txikia eratzea justifikatzen duen txostenak kontrakoa adierazi, inolako frogarik gabe.

Debako Udalak azpimarratu nahi du Itziarko entitate txikiaren eraketa ez dela desanexio bat (udalerrri handiago batek garai batean xurgatutako udalerrri baten bereizketa); hain zuzen, gutxienez duela zazpi mendetatik hona batasun bat eratzen duen lurralde baten barruan entitate bereizi bat sortzea ekarri zuen eraketa hark.

Aurreko paragrafoan azaldutakoa kontuan hartzekoa da gorago aipatutako foru-dekretua argitaratu zenetik Toki Entitate Txikiak izan duen jokabideari begira. Izan ere, jokabide horrek agerian uzten ditu entitate txikia sustatu zutenen benetako asmoak:

udalerrri independentea eratzea. Horretarako, Toki Entitate Txikiak, pixkanaka, dagokion esparrutik kanpoko eskumenak bere gain hartu eta ekintzak egin ditu.

Hala, alde batetik, alde bakarreko jarduketak dira aipatzekoak. Esate baterako, diru-laguntzak eskatu dizkie erakundeei, Udala bera alde batera utzita eta jakinaren gainean jarri gabe. Besteak beste, 2015eko urriaren 14an, Udalaren IFK erabilita, Burugorri eraikinean obrak egiteko diru-laguntza eskatu zion Eusko Jaurlaritzari. Eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa Udalaren kontu korrontean sartu zuen Eusko Jaurlaritzak, eta horrelaxe izan zuen Udalak horren guztiaren berri. Gainera, Udalak ez zekien obra horiei buruzko espedienterik ote zegoen edo entitate txikiak espediente bat hasi ote zuen. Diru-laguntza eskatu zuen entitatearen, hots, Toki Entitate Txikiaren, jakinarazpenik ere ez zeukan.

Beste batetik, nabarmendu behar da ezinezkoa izan dela aipatutako foru-dekretuan Toki Entitate Txikiaren garapen normala bideratzeko jasotzen den hitzarmenik edo akordiorik formalizatzea, batik bat eskuordetu beharreko eskumenei dagokienez. 3.3. atalean (Toki Entitate Txikiaren eskumenei buruzko desadostasunak) azalduko da zehazki. Udaleko eta Toki Entitate Txikiko ordezkariak eta aholkulariak hainbat bilera egin dituzte, baina ez da emaitza positiborik lortu.

2017ko martxoaren 30eko osoko bilkuran, Udalak "Eskumen-erregimena arautzeko eta eskumenak Debako Udalaren eta Itziarko Toki Entitate Txikiaren artean finantzatzeko dokumentua/hitzarmena" onartu zuen, eta, jendaurrean egon zen bitartean, ez zen alegaziorik egin. Dokumentu/hitzarmen horren helburua Debako Udalaren eta Toki Entitate Txikiaren erregimen juridikoa ezartzea zen, berezko eskumenak eta eskuordetu beharreko eskumenak zehazteko, eta eskumen horiek gauzatzea ahalbidetuko zuten neurri ekonomikoak -finantza- eta aurrekontu-neurriak- xehatzeko, Debako udalerrian Itziarko toki entitate txikia eratzekeko urtarrilaren 27ko 3/2015 Foru Dekretuari jarraituz. Dokumentu/hitzarmen horretan, zenbait arlori buruzko erregulazio espezifikokoak daude. Honako hauek dira arloak: transferitutako ondasunak eta xedapen-egintzak; berezko eskumenak eta haien kudeaketa; eskuordetutako eskumenak eta haien kudeaketa; beste ahalmen batzuk; esleipen ekonomikoen irizpideak, eta haien aldiak eta egiteko moduak; gobernu-organoen koordinazioa eta lankidetzak; jarraipen-batzordea; printzipio zuzentzaileak; eta iraunaldia.

Toki-entitate txikien egituraren mugak gainditzeko asmoaren beste adibide bat Itziarko Toki Entitate Txikiak Debako Udalari 2017ko azaroaren 21ean helarazitako dokumentua da. Hartan, Toki Entitate Txikiaren koordinazio teknikoaz arduratzeko kudeatzaile bat kontratatu nahi zuela jakinarazi zion Udalari. Kudeatzaile hori arduradun tekniko nagusia eta koordinatzailea izango litzateke, ezarritako helburuak lortzeko, baliabide publikoen eraginkortasuna bermatzeko, herritarrei kalitatezko zerbitzuak emateko, proiektu berriak kudeatzeko, eta kudeaketa ekonomiko gardena eta eraginkorra bermatzeko. Horiez gain, beste ardurak hauek izango litzateke: batzarrak hartutako erabakiak ebaluatu, gauzatu eta haien jarraipena egitea; proiektu publiko eta pribatuaren jarraipena egitea; Toki Entitate Txikia planifikatzea eta antolatzea, giza baliabideei, baliabide teknikoari eta azpiegiturari dagokienez; herritarrekin zuzeneko harremana izatea; baliabideak lortzea; eta Toki Entitate Txikiaren eta Debako Udalaren arteko lankidetzak sustatzea. Horretarako, zuzeneko harremana izango luke Debako Udaleko zerbitzuekin eta haietako langileekin. Eta udalaz gaindikoa entitateekin kontratatu eta harremana izango luke; alegia, Debako Udalaren gaitetik, Udala baita udalerrri osoaren ordezkari bakarra, kanpora begira.

Funtzio horiek erakunde bateko gerentearenak dira, eta nabarmen gainditzen dituzte toki-entitate txikia eratzea justifikatzen duen txostenean proposatutako idazkari/kontu-hartzailearenak. Izan ere, kudeatzaile horrek auzo-alkatearen funtzio batzuk hartuko lituzke bere gain.

Horren guztiaren ondorioz eta labur-labur adierazten da Toki Entitate Txikiko kudeatzaileek beraiek udalerrri baten berezko eskumenak hartu nahi dituztela, entitate txikia eratzeko foru-dekretuak emandakoak gaindituta, eta entitatearen funtzionamendu egokia zaindu behar duten erakundearekiko –hots, Debako Udalarekiko– mesfidantza sortuz. Atal honetan aipatutako konexio/lotura historikoa alde bakarretik hautsi nahi dute.

3.2. Lurralde-mugei buruzko desadostasunak.

2015ean eratzean, Itziar bereizten eta udalerrri berri bat eratzen saiatu zenean beretzat nahi zituen lurralde-muga berak eman zitzaizkion Toki Entitate Txikiari. 10/1996 Foru Dekretuak proiektu hura bertan behera utzi zuen.

Eraketa-dokumentuak Itziarren industrialde handi bat dagoela jasotzen zuen eta Toki Entitate Txikiari esleitu zion. Baina hori ez dator bat Toki Entitate Txikiko biztanleak eta lurraldea bereizten dituen landa-izaerarekin. Hain zuzen, entitate txikia sortzeko oinarritzat erabilitako justifikazio-txostenak, 2014ko ekainekoak, izaera hori aipatzen zuen (15. or., 3.1. atala): "badago behar adina arrazoi, landa-inguruneko biztanleek...". Gainera, *landa* eta *hiria* bereizten zituen.

Debako Udalaren iritziz, toki-entitate txikia landa-ingurunetzat hartzen duen dokumentu berak 800.000 m²-azalera eta 1.500 langile inguru dituen industrialdea entitate haren lurraldearen barruan sartzea paradoxikoa da, eta ez dago hori justifikatzen duen arrazoirik. Besteak beste, kontuan izan behar da langile horietako asko eskualdeko herri askotakoak edo urrunagokoak direla, ez dutela Itziarrekin loturarik, eta industrialdeko enpresa batzuk multinazionalak direla, askotariko kapitalak dituztela, burtsan kotizatzen dutela, industria-taldeetakoak direla eta goi-mailako teknologiako produktuak egiten dituztela.

Toki Entitate Txikia sortzeko helburu nagusia toki-administrazioaren zerbitzuak landa-inguruneko biztanleentzat hurbilagoak eta erosoagoak izatea bazen, ezin da justifikatu industrialdea Toki Entitate Txikiari ematea.

Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkartek egindako Debako Udalerriko Garapen Iraunkorreko Planean jasotakoaren arabera, industrialde hori garapenerako balio estrategikoko indar nagusietako bat da udalerriko biztanle guztientzat, baina baita eskualde osoarentzat ere. Gogora ekarri behar da Debako Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen arabera industrialde hori dela udal-barruti osoan industriak kokatzeko leku bakarra.

Debako Udalaren ustez, beharrezkoa da udalerriko biztanle guztientzat hain garrantzitsua den elementu bat udalerrriaren lurralde komunean jartzea. Orobat, Debako Udalak kudeatu behar du industrialdea, hark baititu udalerrri osoko biztanle guztien

intereseakoak diren politikak planifikatzeko eskumenak. Eta ez gaur egun soilik, baizik eta, batez ere, epe ertain eta luzean.

Hirigintza-alderdiak kontuan hartuta, udalerrriaren erregimen komuneko azalera 3,9 km²-koa baino ez da. Azalera horretan, hirigunea dago, eta, horrez gain, etorkizunean jarduerak kokatzeko edo herria garatzeko baliorik ez duten mendi-hegal batzuk, aldapa handikoak.

Toki Entitate Txikiko lurraldea Debako hiriguneko hiri-lurzorutik 500 m-raino iristen da, eta hirigunea guztiz inguratzen du. Hortaz, Debako herria hedatzeko eta/edo Debako hirigunerako zein udalerrri osorako azpiegiturak ezartzeko epe ertain edo luzean erabil daitekeen azalera gehiena hartzen du. Debako Udalak uste du, Toki Entitate Txikiaren egungo lurralde-mugek beren horretan jarraituz gero, gerta liteke epe ertain edo luzean Debako hirigunearen hiri-garapena Toki Entitate Txikiaren lurraldearen barruan egin behar izatea; alegia, entitate txikiak harekin ez gizarte- ez identitate-loturarik ez duten biztanle berriak izango lituzke, hiri-izaera nabarmeneko biztanleak landa-izaerako entitate batean egongo liriteke.

Martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 28. artikulua ezartzen duen baldintzaren arabera, ez zaie kalterik egin behar udalerrriaren interes orokorrei, eta ez dago zalantzarik aurreko paragrafoan azaldutakoa kalte nabarmena dela.

Orain arte azaldutakoa kontuan hartuta, argi dago Toki Entitate Txikiaren mugak aldatu behar direla.

3.3. Toki Entitate Txikiaren eskumenei eta haiek gauzatzeko moduari buruzko desadostasunak.

Hasteko, Toki Entitate Txikiaren eskumenei dagokienez, esan beharra dago Euskal Autonomia Erkidego udalei buruzko legeak (2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa) eta 2/2003 Foru Arauak ez dituztela toki-entitate txikien eskumenak arautzen. Hori dela eta, haien ordeztu, Tokiko Araubidearen Oinarrien Legean eta 781/1986 Legegintzako Dekretuan (apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bategina onetsi duena) ezarritakoa bete behar dugu. Ildo horretan, 781/1986 Legegintzako Dekretuaren 38. artikulua ezartzen dituela toki-entitate txikien berezko eskumenak. Hain zuzen, honako hauek dira: iturri, latsarri eta edanlekuen egin, kontserbatu eta konpontzea; landa-bide, mendi, iturri eta ibaietako polizia; kale-garbiketa; ondarea, basoak barne, administratzea eta kontserbatzea; eta auzo-ondasunen erabilera erregulatzea; eta obrak egitea eta zerbitzuak ematea, udal-eskumeneako eta toki-entitate txikiaren interes bakarrekoak, dagokion udalerrriaren kontura ez daudenean. Eskuordetutako eskumenei dagokienez, Udalak eta Toki Entitate Txikiak negoziatu behar dute, eta, horretarako, beharrezkoa da alde aurretik entitatea zergatik eta zertarako eratzen den adostea.

Gure Lurralde Historikoan, ez dago tokiko antolaketa-mota horren tradizioz (Gipuzkoan, Ereñotzuren aurrekaria baino ez dago, baina Ereñotzuk legez dagozkion eskumenak soilik gauzatzen ditu).

Itziarko Toki Entitate Txikiaren eskumenak ezartze aldera, Debako Udalak uste du **eskuordetutako eskumenei lotuta egon behar dutela lurralde-mugarekin**, eta Toki Entitate Txikiaren eskumenak ez dira Udaleko gobernu-organoen eskumenei berdinak izango. **Kontua ez da Toki Entitate Txikia eta Udalerria eskumenei**

ikuspuntutik parekatzea. Toki-entitate txiki baten eraketak ez du inola ere zertan ekarri udal paralelo bat sortzea.

Nolanahi ere, Toki Entitate Txikiaren berezko eskumenek koordinazio-printzipioaren mende egon behar dute, eta eskuordetutako eskumenek, gainera, Debako Udalaren laguntza teknikoaren, errekerimenduen eta akatsak zuzentzeko eskakizunen mende. Ezinbestekoa da koordinatzeko, elkarri informazioa emateko, eta Debako Udalaren eta Toki Entitate Txikiaren artean adostutako eskumenak errespetatzeko prozesuak ezartzea.

Ildo horretan, ez da arrazoizkoa Toki Entitate Txikiari **udalerrri osorako estrategikoak diren eskumenak** eskuordetzea. Esate baterako, **langileak kontratatzeko eskumena, zuzenean emango diren udal-zerbitzuak aldeztu aurretik aztertu gabe. Zerbitzu horien tamaina eta diseinua Plantilla Organikoaren eta Lanpostuen Zerrendaren arabera zehaztuko dira, haiek behar bezala emateko, eta hori Udalbatzak onartu behar du.**

Halaber, ez da batere logikoa udalaz gaindiko erakundeekiko harremanak banatzea edo partekatzea. Hain zuzen, eskualdeko udalerriek sortutako erakunde horiek (Debegesa, Debemen, Debabarreneko Mankomunitatea, etab.) kudeatutako zerbitzuak lurralde-dimentsioko irizpide horri dagozkio, eta udalerrriak beraiek dira haiekin harremana izan behar dutenak, ezinbestean. Orobat, goi-mailako erakundeekiko (hala nola, Eusko Jaurlaritza eta Espainiako Gobernuak) harremanak eta ordezkaritza Debako Udalari soilik dagozkio.

Lehenago azaldu dugunez, eskuordetutako eskumenei dagokienez, Toki Entitate Txikia eratzeko foru-dekretuak ezartzen du eskumen horiek bi alderdiek formalizatu beharrezko hitzarmen baten bidez zehaztu behar direla, eta eskumenek zer esparrutan eta gaitan eragingo duten ere zehaztu behar dela. Udalak bide eman du bilerak egiteko, eta hitzarmen-dokumentu bat proposatu du, adostasunaren bila zenbait aldiz zuzendua. Toki Entitate Txikiko egungo kudeatzaileek behin eta berriz baztertu dute dokumentu hori. Gainera, beste testu batzuk proposatu dituzte, eta haietatik ondoriozta zitekeen foru-dekretuko eskuordetutako eskumenen artean ez zeuden eskumenak beren gain hartzeko eta gauzatzeko asmoa. Esaterako, erakusgarri gisa, honako eskumen hauek: hirigintza- eta egitura-plangintzaren arlokoak; hirigintza-kudeaketaren eta etxebizitza-sustapenaren arlokoak; zerga- eta finantza-eskumenak; eta entitatearen egintzak eta akordioak ofizioz berrikustekoak. Horretarako, Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 2. eta 4. artikuluei helden zien, lege horrek toki-entitateei ematen dizkien eskumenak beren gain hartu eta alde bakarretik transferitu nahian.

Nabarmendu behar da apirilaren 7ko 2/2016 Legeak -ohartu Toki Entitate Txikia eratzeko foru-arauaren ondoren sartu zela indarrean- toki-entitate hauek aipatzen dituela: udalerrriak, udalerrien mankomunitateak eta Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak. Gainera, toki-entitateei esleitzen dien eskumen-muga udalerriei soilik dagokiela zuzenean eta automatikoki. Beraz, gainerako toki-entitateek haiek sortu/eratu dituzten erakundeek eman dizkieten eskumenak hartu behar dituzte beren gain.

Bestela, Toki Entitate Txikiko kudeatzaileek erabilitako logikari jarraituz, 2/2006 Legean aipatzen diren toki-entitate guztiek eskumen berak izango lituzkete. Horren ondorioz, administrazio-jarduketan bikoiztasuna bideratuko litzateke, gutxienez. Hortaz, herri-administrazioen arrazionalizazio- eta iraunkortasun-neurriak bertan behera geratuko

lirateke, baita administrazio-erakundeen arteko lankidetzak eta kooperazio-betebeharrak ere. Aintzat hartu behar da betebeharrak horiei esker den interes publikoak aztertu eta errespetatzen direla, esleitutako eskumenak gauzatzea eragotzi gabe eta gerta litezkeen kontraesanak saihestuz.

Toki Entitate Txikia eratzea justifikatzen duen txostenak eskumenen antolaketa ez-arrazionala ezarri zuen. Besteak beste, Debako Udaleko hainbat langilek (idazkaria; kontu-hartzailea; aparejadorea; administrazio-langileak; brigadako arduraduna eta langileak; udaltzaingoko burua eta udaltzainak; eta kultura-, kirol-, turismo- eta ingurumen-arloetako eta beste arlo batzuetako langileak) beren lan-orduen % 20 entitate txikiarentzat lan egin behar zutela ezarri zuen. Langile horien denbora hori Toki Entitate Txikiari dagokiola argudiatu zen, hartako biztanleria udalerriko biztanleriaren % 20 baita.

Giza baliabideen eskakizun horrek zurruntasuna eragiten du udalerriri txiki bateko udaleko giza baliabideen antolaketan eta kudeaketan, behar bezalako erabilieraren malgutasunaren, arrazionaltasunaren eta eraginkortasunaren kalterako, eta herri-administrazioaren iraunkortasun-neurriak alde batera utzita.

Debako Udalaren aburuz, udal-langileen dedikazioa une eta leku oro sortzen eta hautematen diren premien arabera antolatu behar da, udalerrira bere osotasunean hartuta. Kasuen eta funtzioen arabera, premia horiei erantzuteko beharrezkoak diren langileen kopurua handiagoa edo txikiagoa izango da toki-entitateko biztanle-kopuruak guztizko biztanle-kopuruan duen portzentajea baino, eta Udalak udal-langileen dedikazioa kudeatu behar du. Kontuan izan behar da Debako Udalak Itziarko eta gainerako auzoetako biztanleak ere ordezkatzen dituela.

Itziarko Toki Entitate Txikia eratzea justifikatzen duen txostenak, 2014ko ekainekoak eta entitate txikia eratzeko oinarria izan zenak, aurreikusten du 2017tik aurrera toki-entitateak "zuzenean kontratatutako pertsonal propioa izango duela" (33. or.), eta horren aurrekontua aurkeztu zuen. Hauek izango lirateke langile horiek: idazkari eta kontu-hartzaile jardungo zuen kudeatzailea bat, urteko 56.000 euroko kostuarekin; obra eta zerbitzuetako bi langile, bakoitza urteko 36.400 euroko kostuarekin; eta Debako Udalak toki-entitateari lagako zion administrari laguntzaile bat.

Aurreikusitako hori ez dator bat Gipuzkoako funtzio publikoaren errealitatearekin, Toki Entitate Txikiaren tamaina eta eskumenak kontuan hartuta. Aurreikusitako langile-kopuruari eta haien urteko kostuari begira, udal txiki batekoak dira, eta ez toki-entitate txiki batekoak. Bestalde, toki-entitateek ez dute lan-eskaintza publikoen bidez langile funtzionarioak kontratatzeke eskumenik.

Txostenak berak honela dio (31. or.): "*Inbertsioetarako aurrekontua: Debako Udalak udalerriri mailakoak kontsideratu gabeko inbertsio errealetarako likidatutako aurrekontu propioaren % 20 toki-erakundeari dagokio*". Horren ondorioz, udalerriren kudeaketa esparru edo sektore estankotetan zatitu beharko litzateke.

Entitatea langile-plantilla sortzen ari da, bere tamaina eta eskumenak kontuan hartuta handiegia, eta, gainera, udal-langile askoren dedikazioa eta egin beharreko inbertsioen banatzeko 20/80 irizpidea ezarri da. Horrek banaketa zurruna eragiten du udalerriri beraren barruko bi entitateen artean.

3.4. Funtzionamendu-arazo praktikoak.

Toki Entitate Txikia 2015eko ekainean sortu zenetik igarotako bi urtean baino gehiagotan, koordinazio- eta kudeaketa-zailtasun ugari sortu dira. Interferentzia nabarmenak gertatu dira bi entitate administratzaileen (Udala eta Toki Entitate Txikia) artean, eskumenak ezartzeko moduaren eta egituraren ondorioz. Foru-arauak eta justifikazio-txostenak gabeziak dituzte; haien eduki gehiena toki-entitate txikiaren eraketari buruzkoa da, Udala/Entitate Txikia sistemaren gobernua alde batera utzita, bi alderdien arteko borondate onaren eta akordioaren mende uzten baitu. Horrenbestez, atzerapenak eta bikoiztasunak gertatzen dira kudeaketan, eraginkortasunaren, arrazionalizazioaren, kudeaketa ekonomikoaren eta aurrekontu-kontrolaren kalterako, eta, jakina, biztanleen arazoak konpontzeko ahalmenaren kalterako. Batzuetan, bi administrazioek ados jarri behar dute, eta, adostasun hori lortu ezean, udal-jarduera bertan behera geratzen da. Horrenbestez, kudeaketa oso korapilatsua da, eta eraginkortasun-maila nabarmen txikitu da, bi entitateen baterako funtzionamendu-aldian agerian geratu denez. Horri dagokionez, Debako Udalak uste du funtzionamendua sinplifikatu egin behar dela, udalerrri txikia administratzen duela kontuan hartuta.

Horretarako, lehenago aipatutako "Eskumen-erregimena arautzeko eta eskumenak Debako Udalaren eta Itziarko Toki Entitate Txikiaren artean finantzatzeko dokumentua/hitzarmena" onartu zuen Debako Udalak.

3.5. Ondare-banaketa.

Bere lurraldeko ondare-elementu guztiak entitate txikiari transferitu zitzaizkiela eta, Debako Udalak uste du ondare haietako batzuk udalerrri osoaren interes orokorrekoak direla:

- Debako Udala Gipuzkoako Uren Partzuergoan sartu aurretik egindako ur-sistemako hargune eta hodi guztiak, udal-barruti osoan zehar banatuta daudenak. Gaur egun, hirigunea eta industrialdea Mendaroko Kilimongo urez hornitzen dira. Ur hori Gipuzkoako Uren Partzuergoak kudeatzen du Debabarreneko zenbait udalerrirentzat. Baina partzuergoan sartu aurreko bilketa- eta garraio-sarea udalerrri osoko horniketa-sare orokorreko multzo integratu eta bakarraren barruan dago, eta beharrezkoa denerako erreserba gisa gordetzen da. Horrek segurtasuna ematen dio udalerriri eta, bereziki, hiriguneari; hori da kontsumo-puntu nagusia. Hortaz, sare hori udalerrri osoaren interes orokorrekoa da.
- Itziarko lursaila eta pabilioia: udaleko obra-brigadaren biltegi orokorra da, eta hor udalerrri osorako materialak eta erremintak gordetzen dira.
- Errekaxoko lursaila eta andela: Toki Entitate Txikiaren lurraldetik kanpo dago, Artzabal auzoan, Debako hirigunearen ondoan.

3.6. Administrazio-berezitasunak.

Lehenago aipatutako justifikazio-txostenean, Itziarko biztanleek Debakoek baino zerbitzu gutxiago dutela adierazten da. Biztanleria-gune batek hurbilen izan ditzakeen zerbitzuak haren tamainaren mende daude, besteak beste. Eta, adibidez, Debako hiriguneak Eibarrek edo Donostiak baino zerbitzu gutxiago ditu. Egin beharreko galdera

honako hau da: Gaur egun, Itziarrek 500 biztanleko hirigune batek baino zerbitzu gutxiago ditu? Edonola ere, ikastetxeak –oinarrizko beste zerbitzu bat–, esaterako, ikasgeletan egongo diren adingabeen kopuruaren mende daude, hiriguneak udalerriak diren ala ez diren alde batera utzita.

4. ITZIARKO TOKI ENTITATE TXIKIAREN ERAKETAREKIN LOTUTAKO BESTE DESADOSTASUN BATZUK.

4.1. Itziarko Toki Entitate Txikiaren egungo eraketari buruzko desadostasunak.

Debako Udalak funtsezko desadostasun bat du Itziarko Toki Entitate Txikiarekin, lehenago azaldutako arrazoiengatik eta bien arteko eguneroko harremanean sortzen ari diren beste batzuegatik. Ez dago nahikoa arrazoi sortutako entitatearen tamaina, lurralde-eremua, eskumenak eta ezaugarriak dituen toki-entitate txiki bat sortzeko. Haren eskumenek toki-entitate txiki baten berezko eskumenak gainditzen dituzte, eta udalerrri baten antzeko entitate bat eratzen da beste udalerrri baten barruan. Hori ez da oso arrazionala 5.500 biztanleko udalerrri batean.

Itziarko eta landa-auzoetako biztanleek beren burua kudeatzeko borondatea agertu dute, bai. Eta Debako Udalak uste du borondate hori gauzatu egin behar dela, betiere, udalerrriaren interes orokorreki kalte egin gabe, aipatutako foru-arauaren 28. artikuluan jasota dagoenari jarraituta.

Debako Udalaren eta biztanle gehienek iritziz, Itziarren inguruan eta udal-barrutiaren % 92,4rekin eratutako toki-entitate txikiaren ereduak kalte egiten die interes orokorreki, eta **beharrezkoa da toki-entitate txikiaren beste eredu bat**, biztanleriaren zati baten desioen muga beste zatiaren desioak izatea lehenesten duen eredu bat, hain zuzen.

Hori guztia dela eta, azken urteetan eta baliabide guztiak erabiliz, Debako Udala Toki Entitate Txiki ordezkariekin aldaketa bat negoziatzen ahalegindu da, Debako biztanle guztientzat zuzena den behin betiko konponbide bat adosteko, elkarbizitza atsegina eta lagunkoi baten berme gisa.

komenigarria da Toki Entitate Txikiak zenbait eskumen izatea: behe-sareko ur-horniketa; zabor-bilketa; argiteria publikoa; bide-garbiketa; bide-antolamendua; eraikin publikoen kontserbazioa, konponketa eta mantentze-lanak; hilerria; kirol- eta kultura-zerbitzuak; eta jaiak. Eskumen horietako batzuk berezko eskumenak dira, eta besteak, eskuordetutako eskumenak. 781/1986 Legegintzako Dekretuaren 38. artikulua arabera, bide-garbiketa, eta eraikin publikoen kontserbazioa, konponketa eta mantentze-lanak berezko eskumenak dira. Gainerako eskumenak Udalerriri dagozkio, eta hark Toki Entitate Txikiari eskuordetzen dizkio, haien kudeaketa araututa.

Orobat, beharrezkoa da entitate txikiaren lurralde-mugak egokitzea, batik bat hirigunearen ingurua eta hiri- eta industria-izaerako beste eremu batzuk kontuan hartuta.

Egungo Toki Entitate Txikiak guztiz ukatu du proposamen hori, eta Udalak ez du antzeman beste alderdiak elkarrizketekin jarraitzeko inolako interesik duenik.

4.2. Bereiztea eta Itziarren udalerrri berri bat eratzea.

Itziarko Toki Entitate Txikiak **Debako udalerrriaren lurralde-zati bat bereizteko eta Itziar izeneko udalerrri independente berri bat eratzeko proiektuaren elementu komun asko ditu, eta lurralde-eremu berdin-berdina.** Lehenago aipatu dugunez, Gipuzkoako Batzar Nagusiek atzera bota zuten proiektu hori 1996an, besteak beste "Itziarren aldeko lurralde-banaketa guztiz neurrigabea" zelako. Azaroaren 19ko 10/1996 Foru Arauak hau zioen: *"Ondorio gisa atera daiteke egin nahi den bereizketak Debako udalerrria oso lurralde txikiarekin utziko lukeela eta, hortaz, ez lukeela inolako aukerarik izango auzo komunitate beregain gisa bizitzeko. Aitzitik, jendez asetutako lo-hiria izango litzateke, etorkizunean ez ekonomian, ez hirigintzan, ez etxebizitzetan garatzeko inolako aukerarik gabea eta gastu arruntei beraiei ere aurre egiteko behar adina baliabide ekonomikorik gabea, horrek nahitaez gaur egun auzotarrei eskaintzen dizkien zerbitzuetan murriztea eta kalitatea galtzea ekarriko lukeelarik. Horrek denak eskatzen den bereizketa ezestera bultzatzen du."*

Euskadiko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako Lehen Sailak 116/2000 epaia eman zuen martxoaren 3an, Itziarko auzoan beste udalerrri bat sortzeko bereizketa-saio hura ezeztatzeko, eta Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salako Lehen Sailak 2004ko maiatzaren 3an emandako epaiak berretsi egin zuen epai hura. Bereizketaren kontrako epai haren kausetako bat hau zen: prozesu haren ondorioz Deba izango zenaren bideraezintasun ekonomikoa (gaur egun, udalerrriko erregimen komuneko lurralde txiki gisa geratu da). Hori erakutsi zuten Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusiak 1994ko apirilaren 6an emandako txostenak eta Estatu Kontseiluak 1995eko apirilaren 6an emandako txostenak.

Debako Udalak jakin badaki Itziarrek aurrekoaren antzeko beste bereizketa-eskaera bat egin dezakeela epe ertain edo luzean. Egun, eta 2/2003 Foru Arauak ezarritakoaren arabera, 2.500 biztanle behar dira Gipuzkoan beste udalerrri bat eratzeke. Hortaz, ezinezkoa da Itziar eta landa-auzoak bereizi eta beste udalerrri bat sortzea. Dena den, gutxieneko biztanle-kopuru hori aldatu egin daiteke, legeen edo irizpide politikoaren aldaketaren ondorioz.

Itziarko Toki Entitate Txikia indarrean badago ere, **haren sustatzaileek ez dute adierazi etorkizunean guztizko bereizketari uko egiten diotenik.** Gogoan izan behar da Toki Entitate Txikiaren eraketa **"Itziar udalerrri gisa ezagutzea bultzatzeko batzordea - Herria Sortzen"** izeneko auzo-elkarteak sustatu zuela. Diario Vasco egunkarian argitaratutako informazio-ohar batean, hau adierazten zuten: *"...positibotzat hartzen zen toki-entitate txikiaren gaian sakontzea, baina ez zion inoiz uko egiten bere bereizketa-grinari"* (*"...se entendía positivo profundizar en el tema de la E.L.M, pero que no renunciaba jamás a su anhelo de segregación"*). Gainera, Herria Sortzenek hau zioen informazio-argitalpen batean: *"...Itziarren independentzia-desioari uko egin gabe, Itziarren toki-entitate bat sortzea alferrik galdu ezin den aukera historikoa dela uste da"*.

Informazio-orri batean, Ezker Abertzaleak hau jakinarazi zuen: *"...informazioko eta barne-eztabaidako prozesu bat egin du, eta, bere ideia independentisten ondorioz, erabaki du Itziarrek eta haren auzoek bereizteko duten eskubidearen alde egitea"*.

Urte batzuk barru Toki Entitate Txikiak bereizi nahiko balu, eta unean uneko legeek ahalbidetuko balute, lurralde-mugak Toki Entitate Txikiak gaur egun dituen berberak izango liriateke, zalantzarik gabe; alegia, Debako udal-barrutiaren % 92,5. Kontuan izan

behar da Debako hirigunea izen bereko itsasadarraren eskuineko ertzean dagoela, eta ezkerreko ertza Mutrikuko udal-barrutiak dagoela. Horrenbestez, Debak bere hirigunea soilik izango luke, eta, hartatik 500 metrora, bi udalerrik inguratuta geratuko litzateke: alde batetik, Itziarrek, eta, beste batetik, Mutrikuk. Gainera, garatzeko aukerarik gabe eta industriarik gabe geldituko litzateke, enpresa guztiak industrialdean baitaude, bai eta, jarduera berriak sortzeko aukerarik ez zegoenez, Debako hirigunetik joan zirenak ere. Eta gastu arruntak ordaintzeko baliabide ekonomikorik gabe geratuko litzateke

Debako Udalak uste du hori epe laburrean gertatzeko aukerak oso txikiak direla, baina, gertatuz gero, kaltea izugarrikoa izango litzakeela udalerriko gainerako guneentzat eta, bereziki, Debako hirigunearentzat.

Epe ertainari begira, gomendagarria da Debako Udalak egoera hori arduraz eta zentzuz kudeatzea, udalerrria arrisku horretan egon ez dadin.

5. ALDAKETA.

Aurreko ataletan azaldutakoagatik, Toki Entitate Txikiaren gaur egun eraketarekin sortzen diren eta areagotu daitezkeen kalteak kontuan hartuta, eta gertatzen ari diren distortsioak konpontze aldera, Debako udalerriko Itziarko Toki Entitate Txikia honela aldatzen da:

- Toki Entitate Txikiaren mugen zati bat aldatzen da, eta, horren ondorioz, industrialdea nahiz haren hiri-lurzorua eta Egiako eta Arriolako auzoak (51 biztanle eta 37 biztanle, hurrenez hurren) udalerriko erregimen komuneko lurraldean sartzen dira. Hurrengo 7. puntuan eta 1. planoan zehaztuko dira mugak.
- Itziarko Toki Entitate Txikiaren barruan, Itziarko hirigunea eta gainerako bederatzi auzoak egongo dira: Arbizkoa (53 biztanle), Elorriaga (72 biztanle), Endoia (43 biztanle), Itsaspe (104 biztanle), Lastur Behea (38 biztanle), Lastur Goia (57 biztanle), San Nikolas Plaza (0 biztanle), Mardari (75 biztanle) eta Itziarko auzoa (8 biztanle). Guztira, 941 biztanle dira (2017/01/01eko datuak).
- Beraz, 2017/01/01eko datuen arabera, udalerriko biztanleria-banaketa honela geratzen da:

	Biztanleak	%
Itziarko hirigunea	491	
Toki Entitate Txikiko auzoak	450	
Toki Entitate Txiki aldatua guztira	941	17,11
Udalerriko gainerako guneak	4.559	82,89
Debako udalerrria guztira	5.500	100,00

- Toki-entitateak bere egungo egitura politiko eta administratiboari eutsiko dio.
- Berezko eta eskuordetutako eskumenei eutsiko die. Eskumenok aldaketa honen ondoriozko lurraldean (6. puntuan eta 1. planoan deskribatua) gauzatuko ditu. Gainera, haren kudeaketa-modua arautu egingo da, 8. puntuan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraituz.

- Itziarko Toki Entitate Txikiaren langile-kontratazioa aldatu egingo da: “Kudeatzaile orokorra (Idazkaria/Kontu-hartzailea), eta obra eta zerbitzuetako bi langile”. Haien ordainsaria “a” koefizienteari dagokio, 2014ko ekaineko justifikazio-txostenaren arabera, eta 3/2015 Dekretuaren 3. eranskinean (aurrekontu-esleipenak) ezarritakoari jarraituz. Langileen kontratazioa bertan behera geratuko da. Haien funtzioak Debako Udaleko langileek egingo dituzte, 8. puntuari eta hurrengoetan deskribatutakoaren arabera.
- Debako Udalak Itziarko Toki Entitate Txikiari egin beharreko aurrekontu-esleipenak 9. eta 10. puntuetan zehazten dira.
- Justifikazio-txosten honetako 7. puntuari deskribatutako ondare-elementuak – foru-dekretuaren arabera Toki Entitate Txikiari eman behar zitzaizkionak – ezabatu egiten dira.

Industrialdea Toki Entitate Txikiaren lurraldetik kanpo geratuko da, haren industria-izaera ez baitator bat egungo entitate txikiaren landa-izaerarekin. Elementu estrategikoa da udalerrri osoaren kudeaketan, baita eskualde osoan ere, eta Debako udalerriko biztanle guztiak ordezkatzeko dituen entitateak kudeatu behar du. Halaber, kudeaketa sinplifikatzea aldera, Kontserbaziorako Hirigintza Erakundea Udalaren mende dagoelako eta Toki Entitate Txikiak ez duelako hartaz arduratzeko eskumenik.

Egiako eta Arriolako auzoak lehenago azaldutako arrazoiengatik ateratzen dira entitate txikiaren lurraldetik, eta Debako hirigunetik hurbil daudelako. Hain zuzen, Debako hirigunearekin mugakide diren bakarrak dira, eta, haien ezaugarri fisikoak direla eta, hirigunea garatzeko egokiak dira. Gainera, hirigunea eta industrialdea lotzen dituzte.

Aldaketaren ondoren, Itziarko Toki Entitate Txikiaren azalera hau izango da:

	km ²	%
Entitate Txikia	41,99	80,90
Udalerriko gainerako gunek	9,91	19,10
Debako udalerrria guztira	51,90	100,00

6. LURRALDE-MUGA.

Itziarko Toki Entitate Txikiak muga hauek izango ditu:

Iparaldetik, lurraldearen muga Kantauri Itsasoa da; ipar-ekialdean, Zumaiako udal-barrutiko Barriatua auzoa; ekialdean, Zestoako San Isidro auzoa; Zestoako Arroa Behea eta Arroa Goia auzoak, Endoiaraino. Hortik, GI-3293 tokiko sareko bideari ekialderantz jarraituta, Endoaimendi dago. Behin Endoaimendin, mugak hegoalderantz jarraitzen du mendi-hegaletik, Zastarrainerrekaraino, eta, hortik, ibaiaren arroari jarraitzen dio hego-ekialderantz. Ekialdean, Zestoako Etorra auzoa ere dago, eta, hortik, mugak Izarraitz mendigunearen ipar-mendebaldeko hegaletik jarraitzen du.


Hegoalderago, Azpeitiko udal-barrutiarekin egiten du muga. Muga hori Arbiskoa auzoko Goltzibar baserrira doan errepidearekiko paraleloa da.

Hegoaldea: Azkoitiko eta Mendaroko udal-barrutiak, Mantarregiko gainera doan bidea azken udal-barruti horretan sartzen den arte. X: 551.358; Y: 4.790.551.

Puntu honetatik aurrera, mugak aldatu egiten dira. Hona hemen, muga berriak:

- Aurreko puntutik Elkorrieta mendixkaraino, GI-3292 errepidea. X: 551.533; Y: 4.790.551.
- Arbil mendiaren gailurra. 343 metroko kota. X: 552.370; Y: 4.791.004.
- Lizarreta mendiaren gailurra, 536 metroko kota. X: 553.370; Y: 4.791.004.
- Industrialdeko hiri-lurzoruaren hegoaldeko erpina. X: 554.271; Y: 4.790.392.
- GI-3210 errepidea. X: 554.379; Y: 4.790.612.
- Industrialdeko hego-ekialdeko mugatik hartako hiri-lurzoruaren erpinera. X: 554.550; Y: 4.790.867.
- Industrialdeko ekialdeko mugatik hartako hiri-lurzoruaren ipar-ekialdeko erpinera. X: 554.725; Y: 4.791.332.
- Industrialdeko iparraldeko mugatik, Itziarko bizitegi-hirigunetik bereiziz, industrialdeko hiri-lurzoruaren ipar-mendebaldeko erpinera. X: 553.581; Y: 4.791.947.
- Industrialdeko hiri-lurzoruko mugatik hartako mendebaldeko erpinera. X: 553.557; Y: 4.791.492.
- Ortzaurteko gaina, 297 metroko kota, zolatutako bideen gurutzagunea. X: 553.249; Y: 4.792.007.
- Ansorregira doan zolatutako bidetik.
- Deba eta Itziar arteko bidearekin elkartzen den tokia. X: 553.624; Y: 4.792.265.
- Deba eta Itziar arteko zolatutako bidetik, X puntura: 553.607; Y: 4.792.455, Ansorregi baserriak Toki Entitate Txikiaren lurraldearen barruan geratuz.
- Iribearko erreka (edo Arranomendi erreka), erreken elkargunea. X: 554.155; Y: 4.792.931.
- Iribearko erreka ibilgutik Arranomendin itsasoratzen den arte. X: 553.883; Y: 4.794.401. Hondakin-uren araztegia Debako udalerriko erregimen komuneko lurraldearen barruan geratzen da.

(Koordenatuak:) ETRS 89. UTM30N. Gipuzkoako Foru Aldundiaren kartografia)



1. plano: Debako udal-barrutiaren plano, aldaketa egin ostean Itziar Toki Entitate Txikiaren lurralde-eremua mugatzen duen lerroarekin.

7. ONDAREA.

3/2015 Dekretuan Itziar Toki Entitate Txikiari transferitu beharreko ondasunen zerrenda zehaztean, orduan eratzen zen toki-entitate txikiaren hasierako muga barruan zeuden ondasun guztiak adierazi ziren.

Hala ere, lurralde-muga horiak aldatu direnez, aldaketaren ondoren muga berrien kanpoan geratzen diren ondasunak zerrenda hartatik kendu behar dira. Gainera, badaude toki-entitatearen lurralde-eremuen barruan egonda ere udalerrri osoaren

interes orokorrekoak diren zenbait ondasun. 3.5. puntuan azaldutakoaren arabera, horiek ere zerrendatik kendu behar dira.

3/2015 Dekretuaren arabera transferitu behar diren ondasunetatik, bat ere ez da oraindik benetan transferitu.

Edonola ere, transferitutako ondasun publikoen gaineko xedapen-egintza orok Debako Udalaren baimena beharko du, eta baimen hori legeak agindutako moduan lortu behar da.

3/2015 Dekretuaren 2. eranskinetik, ondasun hauek kentzen dira, eta Debako Udalari itzultzen zaizkio:

4. Itziarko industria-pabilioiaren eraikina.
18. Itziarko industria-pabilioiaren lurra.
19. Itziarko andelaren lurra.
22. Xoxoteko sistemako harguneen lurra.
23. Arlapatza iturriaren lurra, Aiako sisteman.
24. Aixako ponpaketa-estazioaren lurra.
25. Arriolako andelaren lurra.
26. Ansorregiko sistemako harguneen lurra.
28. Zazpiturriko sistemako iturrien lurra.
29. Errekaxoko andelaren lurra.
31. Xoxoteko andelaren eta ponpaketa-estazioaren lurra.
38. Itziar eta Deba arteko errepidea, Toki Entitate Txikiaren lurraldetik kanpo.
48. Donianeberrira doan errepidea.
49. Itziarko Bidea, Toki Entitate Txikiaren lurraldetik kanpo (galtzada zaharra).

8. BEREZKO ESKUMENAK ETA ESKUORDETU BEHARREKO ESKUMENAK KUDEATZEKO ERREGIMENAREN ERREGULAZIOA.

8.1. Berezko eskumenak.

Oro har, Toki Entitate Txikia arduratuko da kanpoko obra eta zerbitzuen kontratazioa kudeatzeaz, zerbitzu horiek emateko beharrezkoa bada, betiere, zerbitzu horiek kontratu txikietan txertatzerik badago edozein modalitatetan, SPKlan ezarritakoa betez. Horretarako, Debako Udaleko dagokion departamentuaren aholkua jaso beharko da.

Gainerako kasuetan, Debako Udalak bideratuko du espedientea, bai eta, dagokionean, kontratazioa ere.

Zehazkiago, honako hau ezartzen da:

- a) Toki Entitate Txikiak ordaindu beharko du transferitutako eraikin publikoetan mantentze-lanak eta konponketak egiteko beharrezko materiala, baita energia elektrikoa, ur-hornidura, garbiketa eta erabileraren ondoriozko beste gastu batzuk ere.
- b) Hilerriz-zerbitzuei dagokienez, hondakinak erretzeko eta hilerrian konponketak egiteko gastuak ordainduko ditu.
- c) Berdeguneak mantentzeko kontratatutako enpresari ordaindu beharko dio.
- d) Bide-garbiketan eta zabor-bilketan, Debabarreneko Mankomunitateari ordainduko dio, edo zerbitzu horretaz arduratzen denari.

- e) Jai-muntaketetan, Lasturreko eta Itziarko zezen-plazak muntatzeko kontratazioaz arduratu beharko du.
- f) Hiri-altzarien konponketak egin eta obra txikietarako materiala erosiko du.
- g) Baserrietara eta basoetara doazen bideen mantentze-lanak –elurra kentzeko makina barne– haren konturakoak izango dira.
- h) Argiteria publikoan, horniduraren eta mantentze-materialaren gastuak ordaindu beharko ditu, baita hobekuntza-gastuak eta Gabonetako argien gastuak ere.
- i) Kultura-arloan, Toki Entitate Txikiak jaiak eta kultura-baliabideak kudeatuko ditu; hain zuzen, Itziarko hiriguneko jaiak, beste auzo batzuetakoak eta San Isidro, haurrentzako jarduerak eta azoka txikia. Haien kostua ere bere gain hartu beharko du.
- j) Kirol- eta gazteria-arloan, kirol-jarduerak eta gazteentzako jarduerak antolatuko ditu. Zehazki, gimnasia-gela alokatzeko eta mantentzeko gastuak, Zabalsoroko eta Lasturreko frontoien mantentze-gastuak, gazte-egunaren gastuak eta kirol-ekipamenduen horniketa-gastuak ordaindu beharko ditu. Eskola-kirola antolatzeaz Debako Udaleko kirol- eta gazteria-zerbitzua arduratuko da.
- k) Euskara- eta hezkuntza-arloetan, euskararen normalizazioaren esparruan, udalerrian euskararen erabilera sustatzeko egiten diren ekintzak Itziarren antolatzeko ahalegina egingo da, Debako Udaleko euskara-arduradunaren bidez.

Itziarko Toki Entitate Txikiko ordezkariak parte hartuko dute hezkuntzaren arloko erabakiak hartzeko foroetan.

Toki Entitate Txikiak eskolaren mantentze-, konponketa- eta garbiketa-gastuak ordainduko ditu, lehenago azaldutako baldintzetan, baita erabileraren ondoriozko gastuak ere. Eskolan konponketa-gasturik edo inbertsiorik egin beharko balitz, Toki Entitate Txikiaren ardura izango litzateke.

l) Herri-segurtasunari, zirkulazioaren antolamenduari eta polizia-zerbitzuei dagokienez, Debako Udaleko Udaltzaingoko agenteak arduratuko dira, Toki Entitate Txikiarekin koordinatuta.

Adierazi behar da kanpoko obra eta zerbitzuen kontrataziorako esleipen ekonomikoak – horrenbestez, aurreko a) eta l) bitarteko puntuetan azaldutako berezko funtzioak eta eskumenak kudeatzeko modua– Itziarko Tokiko Entitate Txikia eratzea justifikatzen duen 2014ko ekaineko txostenean ezarri zirela. Txosten horretan, esleipen horien zenbatekoak 3/2015 Dekretuaren 3. eranskinak (aurrekontu-esleipenak) ezarritako "b" koefizientean bildu ziren.

Txosten honetako 3.3. atalean adierazi denez, berezko eskumenei dagozkien zenbait funtzio eta lan egiteko ez dago zehaztuta kanpoko eragileak kontrata daitezkeenik. Kasu horretan, Debako Udaleko langileek egingo dituzte funtzio eta lan horiek, une eta leku orotan sortzen diren eta hautematen diren premien arabera, eta zer baliabide dauden eta une horretan erabilgarri ote dauden kontuan hartuta, betiere, udalerrria bere osotasunean hartuta.

Kasuen eta funtzioen arabera, premia horiei erantzuteko beharrezkoak diren langileen kopurua handiagoa edo txikiagoa izango da toki-entitateko biztanle-kopuruak guztizko biztanle-kopuruan duen portzentajea baino. Beraz, Udalak kudeatuko du udal-langile horien dedikazioa, Itziarko eta gainerako auzoetako biztanleak ere ordezkatzeko baititu.

Nolanahi ere, Toki Entitate Txikiak Debako Udaleko administrari bat izango du. Administrari horrek Itziarko entitatearen egoitzan bertan egingo du lan, eta herritarren

arretako funtzioez (eskuordetu beharrezko eskumena) eta Toki Entitate Txikiko ohiko administrazio-kudeaketaz arduratuko da. Bi erakundeek adostu behar dute zenbat denbora dedikazioa izango duen.

8.2. Eskuordetu beharreko eskumenak.

Eskuordetu beharreko eskumenei dagokienez, 3/2015 Dekretuak beren-beregi aipatzen ditu. Hain zuzen:

- Hirigintza-diziplina.
- Gizarte-zerbitzuak.
- Osasuna.
- Turismoa, ingurumena eta Geoparkea.
- Herritarrei arreta entitate txikiaren interesekoak soilik diren zerbitzuak ematean.

Hortaz:

- Hirigintza-diziplinan, obra txikiak egiteko lizentziak eman ahal izango ditu. Lizentzia horien administrazio-izapideak Debako Udalak horretarako esleitutako pertsonak egingo dituzte.
- Gizarte-zerbitzuak Debako Udalarekin koordinatuta emango dira. Ildo horretan, adinekoei arreta berezia emango zaie. Itziarko osasun-zentroko mantentze-lanen gastuak Toki Entitate Txikiak kudeatu eta ordainduko ditu.
- Osasunari dagokionez, Itziarko biztanleei lehen mailako osasun-zerbitzuekin erlazionatutako erabakiak hartu behar direnean, Toki Entitate Txikiak parte hartuko du.
- Turismoaren, ingurumenaren eta Geoparkearen kasuan, aurreikusten da Toki Entitate Txikiak arlo horiei eta Geoparkearen proiektuari buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea. Turismorako, ingurumenerako eta Geoparkea sustatzeko baliabide ekonomikoak Debako Udalak kudeatuko ditu.
- Herritarrei arretari dagokionez, Toki Entitate Txikiaren interesekoak soilik diren zerbitzuak ematean, entitate txikiaren eskumeneko udal-izapideak egiteko zerbitzuak antolatu eta eskaini ahal izango dira, Itziarko biztanleek izapide horiek egin ditzaten.
- Eskuarki, berezko eskumenen atalean kanpoko kontratazioari buruz azaldutako mugak eta moduak eskuordetu beharreko eskumenetan ere aplikatuko dira. Horiez gain, dagokionean, jarraian azaltzen duguna ere hartuko da kontuan. Eskuordetu beharreko eskumenei dagokienez, kanpoko obrak eta zerbitzuak kontratatzeko esleipen ekonomikoak nahiz Debako Udaleko langileek Itziarko Toki Entitate Txikian gauzatu beharreko kudeaketa eta dedikazioa –hots, kudeaketa-modua, azken batean– Itziarko entitate txikia eratzea justifikatzen duen 2014ko ekaineko txostenean ezarri ziren. Haien zenbatekoak 3/2015 Dekretuaren 3. eranskinean (aurrekontu-esleipenak) ezarritako "b" eta "c" koefizienteetan sartu ziren.

8.3. Debako Udalak Itziarko Toki Entitate Txikiari egin beharreko zerbitzuak.

Berezko zein eskuordetutako eskumenetarako, Debako Udalak Itziarko Toki Entitate Txikiari egingo dizkion pertsonal- eta kudeaketa-zerbitzuak hauek izango dira, lehenago aipatutakoez gain:

A) Idazkaritza: Udaleko Idazkaritzaren berezko funtzio publikoaz gain (Toki Entitate Txikiaren egintzen legezketasunaren fede publikoa eta aginduzko bermea), honako hauek:

- Administrazio-prozedurak bideratzea eta haien jarraipena egitea, baldin eta Debako Udaleko prozedura horietarako administrazio-unitate baten (turismoa, obrak eta zerbitzuak, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza eta euskara, turismoa eta ingurumena, kultura, gazteria eta kirola, idazkaritza, ondarea eta udaltzaingoa) esku-hartze tekniko espezializatua beharrezkoa bada.

- Toki Entitate Txikiaren funtzionamendurako behar diren administrazio-lanak egitea eta haien jarraipena egitea, herritarren arretarako zerbitzu baten eta leihatila bakarraren bidez, zerbitzu publikoei, administrazio-prozedurei eta hasitako prozeduren izapidetze-egoerari buruzko informazioa emateko. Gainera, izapide hauek egingo dituen kudeaketa-zerbitzu batez arduratuko da: administrazioari zuzendutako idazkien sarrera-erregistroa; administrazio-unitate arduradunarekin adostutako prozeduren hasierako dokumentazioa hartzea; ekimen, iradokizun, abisu, kexa, erreklamazio eta esker onak jasotzea; eta Toki Entitate Txiki arduradun politikoeekin nahiz Udaleko teknikariek aurretiko hitzordua eskatzeko zerbitzua.

- Auzo-batzordeari, gainerako auzoetakoei, auzo-alkateari eta Toki Entitate Txiki beste batzorde sektorial batzuei administrazio-arloko laguntza ematea.

B) Esku-hartzea: Toki Entitate Txikiak kontzeptu guztiengatik jasotzen dituen esleipen ekonomikoak kontrolatzeko, ikuskatzeko eta haien jarraipena egiteko funtzio publikoa.

C) Hirigintza: entitate txikiaren lurralde-eremuan egin beharrek obra txikietarako aholkularitza tekniko eta administrazio-laguntza ematea, eta obra txikiak baimentzeko espedienteak izapidetzea eta haien jarraipena egitea.

D) Kultura: entitate txikiaren lurralde-eremuan kultura-ekimenak, jaiak eta mota askotako ekitaldiak antolatze laguntza tekniko eta administratiboa.

E) Kirola eta Gazteria: entitate txikiaren lurralde-eremuan eskola-kiroleko jarduerak, kirol-arloko beste jardura batzuk, eta gazteria-arloko plangintza- eta garapen-ekimenak egiteko laguntza tekniko.

F) Euskara eta Hezkuntza: Itziarren euskara sustatzeko jarduerak eta hezkuntza-arloko beste alderdi batzuetan jarduerak planifikatzeko eta gauzatzeko beharrezko laguntza tekniko.

G) Gizarte Zerbitzuak: oinarrizko gizarte-zerbitzuak, etxez etxeko laguntza eta adinekoentzako laguntza emateko eta, besteak beste, arrisku-prebentzioan eta genero-berdintasunean zerbitzuak emateko laguntza tekniko.

H) Ordena Publikoa eta Herritarren Segurtasuna: ordena publikoa eta herritarren segurtasuna bermatzeko jarduketan plangintza eta koordinazioa.

I) Obrak eta Zerbitzuak: Debako Udaleko brigadako langileek mantentze- eta garbiketalarik egingo dituzte transferitutako eraikin, berdegune, parke, kale eta bideetan, eta

Toki Entitate Txikiari espezifikoki esleitu ez zaizkion hiri-altzarietan, hilerrian, argiterian, ur-zerbitzuan, jaietan eta muntaketetan, 8.1. atalean azaldutako baldintzak eta mugak kontuan hartuta. Brigadarena izango da zerbitzu horiei dagokien erantzukizun teknikoa, baina Toki Entitate Txikiak zehaztuko ditu lan horiek egiteko lehentasunak, Debako Udalarekin koordinatuta.

9. INBERTSIOAK.

Toki Entitate Txikiak bere eremuan sartzen diren inbertsioak kudeatzeko, baliabide ekonomiko hauek izango ditu: Debako Udalak udal-maila edo -eremukotzat jotzen ez dituen inbertsio errealean 6. kapituluan likidatutako berezko baliabideen % 20; eta Itziarri dagozkiola jotzen diren inbertsioentzat Toki Entitate Txikiak nahiz Debako Udalak lortzen dituzten diru-laguntzak eta maileguak.

Debako Udalak eta Itziarri Toki Entitate Txikiak adostu beharko dituzte udal-mailakotzat jotzen diren inbertsioak eta udal-mailakotzat jotzen ez direnak bereizteko irizpideak. Udal-mailakotzat joko dira hirigintza-jarduketan ondorioz azpiegiturak edo ekipamenduak lekualdatzea edo aldatzea eragiten dituzten inbertsioak, jarduketa horietatik lortutako diru-sarreraren bidez finantzatzen badira. Halaber, udal-mailakotzat jotzen ez diren inbertsioetatik, Udalak helburudun diru-laguntzengatik jasotzen dituen zenbatekoak kenduko dira.

Itziarri Toki Entitate Txikian egin beharreko ohiko inbertsioetarako urteroko gutxieneko kopurua ezarri da: 60.000 euro, aurrekontu-egonkortasunari buruzko xedapenak betetzeari utzi gabe. Gutxieneko kopuru ekonomiko hori Toki Entitate Txikiari dagokion % 20aren azpitik badago, ondorengo urteetan zehar konpentsatuko da; eta Toki Entitate Txikiak Debako Udalarekin izan dezakeen zor osoa ezingo da izan inoiz Udalaren ohiko diru-sarreraren % 5 baino handiagoa.

Aurreko paragrafoan aipatutako % 20ko ehunekoari eta urteko 60.000 euroko gutxieneko zenbatekoari zuzenketa-faktorea aplikatu behar zaie urtero, 3/2015 Dekretuak biztanleriaren bilakaeraren inguruan deskribatutakoari jarraituz, oinarri-urte gisa 2013 hartuta.

Debako Udalak eta Itziarri Toki Entitate Txikiak adostu beharko dute nola artikulatuko den konpentsazio-mekanismo hori; eta noiz likidatuko den 60.000 euroko gutxieneko kopuru horren eta 6. kapituluan likidatutako berezko baliabideen % 20aren arteko saldoa.

10. TOKI ENTITATE TXIKI ALDATUAREN AURREKONTU-ESLEIPENAK.

Aurrekontu-esleipenak helburudunak izango dira, haiek behar bezala bete eta kontrolatze aldera, Debako Udaleko kontu-hartzaileak kontrol-funtzio horiek egingo ditu Toki Entitate Txikian.

Toki Entitate Txikiak ez badu Debako Udaletik jasotako esleipen osoa egikaritzen, saldoa, behar bezala zenbatuta, Toki Entitate Txikiaren hurrengo urteko aurrekontuan sartuko da. Hortaz, zenbateko hori kendu egingo da Udalak hurrengo urterako esleitutako transferentzia-partidatik. Kenketa hori gastu arrunteko aurrekontu-partidei soilik egingo zaie. Ez zaie egingo aurrekontu-ekitaldian burutu gabeko inbertsioetarako esleipenei, ezta konprometitutako kredituei ere.

Egiten aldaketa dela eta (lurralde-mugak, eskumen-erregimenaren erregulazioa eta kudeaketa-modua, eta Toki Entitate Txikiko biztanle-kopurua), dagokion egokitzapena egin beharko da Toki Entitate Txikia eratzeko 3/2015 Dekretuan ezarritako aurrekontu-esleipenetan.

Toki Entitate Txikiari eman beharreko esleipen ekonomikoa zehazteko, formula bat ezarri zen, eta, hartan, Udalak entitate txikiari egin beharreko ohiko ekarpena lau gairen batura da. Lau gai horiek lortzeko, Debako Udalaren aurrekontu finkatuko kapitulu bakoitzeko (1, 2, 4 eta 6) zenbatekoa koefiziente batez biderkatzen da. Koefiziente horiek a, b, c eta d dira, eta Toki Entitate Txikiari kapitulu bakoitzeko guztizko gastuan zer zati dagokion adierazten dute.

Koefiziente horiez gain, 3/2015 Dekretuak BPA zuzenketa-faktorea gehitzen du, Toki Entitate Txikiko biztanleriak udalerriko biztanleria osoarekiko duen aldakuntza erlatiboa kontuan hartzeko.

Hain zuzen, Toki Entitate Txiki eratzeko 3/2015 Dekretuak hau ezartzen du:

a) Ohiko ekarpena formula honen arabera kalkulatu da:

$$[A] = ([1K]*a + [2K]*b + [4K]*c + [6K]*d) * BPA$$

Hartan:

[A] = Ohiko ekarpena.

[1K] = Aurrekontuaren 1. kapituluko gastua.

a = Koefizientea: fase bakoitzean izango duen balioa ondoren zehaztuko da.

[2K] = Aurrekontuaren 2. kapituluko gastua.

b = Koefizientea: fase bakoitzean izango duen balioa ondoren zehaztuko da.

[4K] = Aurrekontuaren 4. kapituluko gastua.

c = Koefizientea: fase bakoitzean izango duen balioa ondoren zehaztuko da.

[6K] = Aurrekontuaren likidazioaren 6. kapituluko gastua.

d = Koefizientea: fase bakoitzean izango duen balioa ondoren zehaztuko da.

BPA: Biztanleriaren bilakaeraren arabera zuzenketa faktorea. Modu honetan kalkulatu da:

$$BPA = \left\{ \left[\frac{\frac{BI_i}{BI_0}}{\frac{BD_i}{BD_0}} - 1 \right] / 4 \right\} + 1$$

Hartan:

BIi= Itziarko biztanleria i urtean.

BI0= Itziarko biztanleria oinarritzko urtean (2013an).

BDi= Debako biztanleria i urtean, Itziarko Toki Entitate Txikia barne.

BD0= Debako biztanleria oinarritzko urtean (2013an), Itziarko Toki Entitate Txikia barne.

Ondorio honetarako, [1K], [2K], [4K] eta [6K] aldagaiak kalkulatzeko Itziarko toki-entitate txikiaren eta Debako Udalaren aurrekontu bateratuak erabiliko dira, organismo autonomoak kontuan izan gabe.

Hain zuzen, txosten honetan proposatzen den aldaketaren ondorioz, pertsonal-gastuei dagokienez (1. kapitulua) eta 8. puntuan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraituz, zerbitzuak udal-langileek emango dituzte zuzenean. Beraz, ez zaio horregatik transferentziarik egingo Toki Entitate Txikiari.

Orobat, Itziarko Tokiko Entitate Txikiaren lurralde-mugak ere aldatu dira aldaketaren ondorioz, eta industrialdea, biztanlerik gabea, erregimen komuneko lurraldean sartu da. 3/2015 Dekretuaren arabera, aurrekontuaren zati bat industrialdeko gastuetarako da, zaborrerako eta argiteriarako, hain zuzen.

Bestalde, txosten honetan lurralde-mugetarako proposatzen den aldaketak entitate txikiko biztanle-kopurua ere aldatzen du, baita horrek udalerriko guztizko biztanle-kopuruan duen ehunekoa ere.

Horrenbestez, a, b, c eta d koefizienteak berriro zehaztu behar dira. Horretarako, 2014ko ekainean egindako eta 3/2015 Dekretuaren oinarri izan zen **Itziarko Toki Entitate Txikia eratzea justifikatzen duen txostenean ezarritako prozedura bera erabiliko da**, eta Debako Udalaren 2013. urteko behin betiko aurrekontua oinarritzat hartuko da. Ondoren, BPA faktorea aplikatuko da.

Justifikazio-txosten hori Toki Entitate Txikiari eman beharreko esleipenak kalkulatzeko oinarri gisa ere balio izan zuen. Horretarako, prozedura hau erabili zen lehen aipatutako a, b, c eta d koefizienteak kalkulatzeko:

- Debako Udalaren 2013ko aurrekontua erreferentziatzat hartuta, partidaren arabera bereizten dira Itziarko Toki Entitate Txikiak izango zuen lurralderako esleipenak.

- Esleipen horiek Toki Entitate Txikiarentzat proposatzen diren eskumenen arabera, eta ezartzen diren hiru garapen-faseetan. Fase bakoitzean, hartan hartzen diren eskumenak zehazten dira.

- Toki Entitate Txikiari eman beharreko esleipenak kapitulutan batzen dira, eta Udalaren 2013ko aurrekontu finkatuko kapituluekin alderatzen dira. Horrela, Toki Entitate Txikiaren gastuak udalerriko osoaren guztizko gastuaren gainean duen ehunekoa lortzen da. Gauza bera egiten da hiru faseetan.

Horrelaxe, a, b, c eta d koefizienteak lortzen dira hiru fase edo urteetako bakoitzerako.

Gogoan izan behar dugu lau gastu-kapitulu daudela.

- Lau gastu-kapitulu daude:
- 1. kapitulua. Pertsonala. Itziarko Toki Entitate Txikian proposatutako aldaketaren ondorioz, ez da transferentziarik egingo 1. kapituluko pertsonal-gastuengatik.
- 2. kapitulua. Ondasun Arrunten Erosketa eta Zerbitzuak 2013an, industrialdean zaborrak biltzeko aurrekontua hau izan zen: 186.118,55 €. 2013an, justifikazio-txostenaren arabera, industrialdeko argiteriaren elektrizitatearen kostua hau izan zen. 5.000 €.

Aipatutako koefizienteak lortzeko, zenbateko horiek kendu behar dira.

- 4. kapitulua. Transferentzia Arruntak 2014ko ekaineko justifikazio-txostenean aurreikusitakoak esleitzen dira.
- 6. kapitulua. Inbertsioak. 9. puntuan adierazitakoaren arabera.

Lurralde-mugak aldatu ostean biztanle-kopurua ere aldatzen denez, Udalak eman beharreko esleipenak egokitu egin behar dira, 3/2015 Dekretuan ezarritako BPA zuzenketa-faktorea aplikatuz.

Aldaketa honen ondorioz III. faserako lortzen diren koefizienteak erabiliko dira 3/2015 Dekretuan ezarritakoen ordean, eta honako taula honetan ageri dira:

Debako Udalaren 2013ko aurrekontuak eta Itziarko Toki Entitate Txikiaren aurrekontuak (2019-2020), 3/2015 Dekretuaren arabera eta aldaketa honen arabera.
Entitate txikiak III. fasean kudeatu beharreko gastuen eta zerbitzuen aurrekontua

Art. zk.	Debako Udala 2013	III. fasea, 2019/2020		III. fase aldatua, 2019/2020	
		Itziarko TET	%	Itziarko TET	%
10.	28.893,00.	-	-	-	-
12.	972.565,00	128.800,00	13,40	0	0
13	307.001,00	-	-	-	-
16	459.463,00	-	-	-	-
1. kap.	1.767.922,00	128.800,00	7,29	-	-
20	19.538,00	21.838,00	111,77	21.838,00	111,77
21	374.350,00	84.000,00	22,44	79.000,00	21,10
22	2.926.710,00	551.047,74	18,83	364.928,45	12,46
23	28.580,00	-	-	-	-
2. kap.	3.349.178,00	656.885,74	19,61	465.766,45	13,90
33	58.400,00	-	-	-	-
36	400,00	-	-	-	-
3. kap.	58.800,00	-	-	-	-
41	85.536,71	-	-	-	-
42	118.332,88	21.500,00	18,17	21.500,00	18,17
43	494.080,00	-	-	-	-
48	190.031,41	15.480,00	8,15	15.480,00	8,15
4. kap.	887.981,00	36.980,00	4,16	36.980,00	4,16
60	60.719,00	19.743,80	32,52	0	
62	82.318,00	40.256,20	48,90	0	
64	9.000,00	-	-	-	-
6. kap.	152.037,00	60.000,00	39,46	60.000	0,2000
82	6.000,00	-	-	-	-
8. kap.	6.000,00	-	-	-	-
93	335.000,00	-	-	-	-
9. kap.	335.000,00	-	-	-	-
Guztira	6.556.918,00	882.665,74	13,4	502.746,45	7,66

Aldaketa honen ondoren, ohiko ekarpena zehazteko erabili behar den formulako koefizienteek balio hauek izango dituzten Toki Entitate Txikiaren III. Garapen-fasean (2019):

<u>Koefizientea</u>	<u>III. faseko balioa</u>
a	0,0000
b	0,1390
c	0,0416
d	0,2000

2017rako, BPA zuzenketa-faktorea hau da: 0,97

Faktore hori urtero kalkulatu eta aplikatu behar da, oinarri-urte gisa 2013 hartuta.

b) Ezohiko ekarpena ezohiko inbertsio eta diru-laguntzei dagokien ekarpen ekonomikoa da: Itziarren ezohiko proiektu eta inbertsioak egiteko, Itziarko Toki Entitate Txikiak eta Debako Udalak adostutako ekarpen ekonomikoa sartzen dira bertan, inbertsio eta proiektu horien kudeaketa eta kontratazioa Toki Entitate Txikiak bere gain hartzea egokiago jotzen den kasuetan.

11. ITZIARKO TOKI ENTITATE TXIKIAREN BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA.

Debako Udalak Itziarko Toki Entitate Txikiari egin beharreko ekarpen ekonomikoa esleitu da, entitate txikiak bere eskumeneko zerbitzu, gastu eta inbertsioan behar bezala finantzatu ditzan.

Entitate txikiaren aurrekontua zehazteko 9. puntuan azaldutako kalkulu-irizpideek eta orain arte emandako datuek berretsi egiten dute:

- 1. kapitulua. Pertsonal-gastuak: funtzio eta lan guztiak Debako Udaleko langileek behar bezala egingo dituzte, lehenago azaldutakoaren arabera.

- 2. kapitulua. Ondasunen erosketa eta zerbitzuak. Industrialdeko zabor-bilketaren eta argiteriaren zenbatekoak kendu dira, industrialdea udalerriko erregimen komuneke lurraldean sartzen baita.

Toki Entitate Txikiaren eraketa-aurrekontuan, 347.625,24 euroko zenbatekoa ezarri zen, baina Debabarreneko Mankomunitateak ezin izan du bere faktura lurralde-eremuen arabera banakatu: Itziar eta Itsaspe, industrialdea eta gainerako auzoak. Baina Udalak hiru eremu horietan zerbitzu hori emateagatik tasa-kontzeptuan kobratzen dituen zenbatekoak eskura daude. Hortaz, gastua diru-sarrerekiko proportzionalki banatu da.

Zabor-tasengatik aurreikusten diren diru-sarrerak (2018)

	€	%
Itziarko hirigunea eta Itsaspe	59.190,88	33,28
Entitateko beste auzo batzuk	23.432,00	13,18
Industrialdea	95.211,04	53,54
Guztira	177.833,93	100,00

Beraz, eraketa-aurrekontuko 347.625,24 euroko zenbatekoa honela banatu da:

	€	%
Itziarko hirigunea eta Itsaspe	115.689,68	33,28
Entitateko beste auzo batzuk	45.817,01	13,18
Industrialdea	186.118,55	53,54
Guztira	347.625,24	100,00

- 4. kapitulua. Transferentzia Arruntak Itziarko Toki Entitate Txikia eratzeko 3/2015 Dekretuan aurreikusitako esleipenak mantentzen dira
- 6. kapitulua. Inbertsioak. Aurrekontu-esleipena mantentzen da, % 20ko ehunekoarekin, eta urteko 60.000 euroko gutxieneko kopurua; urtero, BPA zuzenketa-faktorea aplikatu behar zaio.

Aurrekontu-aldaketa horiek ez dute Toki Entitate Txikiaren bideragarritasun ekonomikoa aldatzen, ezta bere gain hartutako zerbitzuak emateko ahalmena ere. Aurrerantzean Toki Entitate Txikian egongo ez den eta udalerriko erregimen komunean sartzen den lurralde-zatiari dagozkion zenbatekoak soilik kendu dira, eta Toki Entitate Txikiko langileak kontratatzeko aurreikusitako zenbatekoak ere bai, langile horien funtzioak Debako Udaleko langileek egingo baitituzte.

12. UDALERRIAREN INTERES OROKORRETARAKO KALTERIK EZA.

Itziarko Toki Entitate Txikiaren aldaketa honen bidez, bi gauza lortu nahi dira aldi berean: alde batetik, Debako hiriguneak bere etorkizuneko garapena epe ertain eta luzean aurreikusi eta zaindu ahal izatea, eta udal-kudeaketa arrazionalizatzea; eta, bestetik, Itziarko hiriguneko eta landa-auzoetako biztanleriaren autokudeaketa-nahiei leku ematea.

Betiere, lurralde beraren barruan, haren ahalbideekin eta tamainarekin bat datozen antolaketa eta kudeaketa izanda, eta eraginkortasun-, arrazionaltasun-, iraunkortasun- eta ekonomia-irizpideei eutsita.

Egiten den aldaketak ez dio kalterik egiten udalerraren interes orokorrei. Izan ere, lurralde-oreka hobea lortzeko egin da, lehenago azaldutako arrazoi guztiak aintzat hartuta.

13. BALIABIDEEN KOORDINAZIOA ETA OPTIMIZAZIOA.

Debako Udalak eta Itziarko Toki Entitate Txikiak koordinazio-neurriak adostu beharko dituzte giza baliabideak partekatu eta optimizatzeke; halaber, bestelako neurriak hartu beharko dituzte sortu litezkeen gailuzkoak saihesteko.

Bi erakundeen jarduketan eta funtzionamenduan koordinazioa eta lankidetzaren bermatze aldera, hau ezartzen da:

- a) Alkateek, bi erakundeak ordezkatuz eta bietako edozeinek eskaera arrazoitua egin ondoren, bilerak egingo dituzte bi erakundeei eragiten dieten akordioak hartu aurretik.
- b) Debako Udalaren osoko bilkuren gai-zerrendako gairen batek Toki Entitate Txikiaren interesetan eragina duenean, haren ordezkariek horri buruz informatu ahal izango diote Udalbatzari.
- c) Udalak Toki Entitate Txikiari bidaliko dio haren interesetan eragina duten akordio guztien kopia.
- d) Toki Entitate Txikiak bere akordio guztien kopia bidali beharko dio Udalari.

Itziarko Toki Entitate Txikiaren batzordea.

Debako Udaleko udalbatzak 2018ko urriaren 10ean egindako osoko bilkuran, Itziarko Toki Entitate Txikiaren batzordea sortu zen, Debako Udalaren eta entitate horren arteko kudeaketa, koordinazioa eta elkarlana bideratuko dituen.

Osaera eta funtzionamendua.

Erakunde biak beren gobernu-organo gorenek ordezkatuko dituzte.

Batzordea osatuko duten pertsonak hurrengoak dira:

Debako Udalaren ordezkariak:

- Alkatea.
- Gobernu-taldeko 2 zinegotzi.
- Oposizioko zinegotzi 1.

Itziarko Toki Entitate Txikiko ordezkariak:

a) Auzo-alkatea.

Batzordeko lehendakaria Debako alkatea izango da, eta bileretara teknikariei edo pertsona espezializatuei egin diezaieke deialdia.

Debako Alkatea, Itziarko Toki Entitate Txikiko auzo-alkatea bezala, batzorde-saioetara beren konfiantzako pertsonekin lagunduta joan daiteke, hauek aholkua emateko eztabaidatuko diren berariazko gaietan.

Batzordea gutxienez bi hilabeteroko maiztasunarekin elkartuko da, aldez aurretik batzordeko lehendakariak deituta edo Toki Entitate Txikiko auzo-alkateak eskatuta.

Deialdiak bilera-datarekiko gutxienez hiru egun lehenago egingo dira.

Deban, 2018ko urriaren 11n